



Erle langileen amodioak Aleksandra Kollontai

Liburu honen aurrean izan dudan lehen erreakzioa, neure burua defentsiban jartzea izan da. Nondik atera da idazle hau? Merezi al du benetan leku bat Literatura Unibertsalaren barruan?, edo argitalpen oportunistak horietako bat da, feminismoaren boom-az baliaturik produktu mediokre bat sartu nahi izan digutena, emakume batek idatzia izanik haren balio nagusia? Ala, aitzitik, ba ote du Kollontai ondo merezitako leku bat literatura unibertsalaren barruan, zio patriarkal/matxistengatik gutxietsia izan eta gero? Idazle ona izango ez balitz, edota gure Literatura Unibertsala bilduman egoteko bezain ona izango ez

balitz, zilegi izango al litzateke "diskriminazio positiboa" aplikatzea eta Shakespeare, Emily Brönte, Herman Melville, Mary Shelley, Milan Kundera edota Alice Munro argitaratuak izan diren bilduma berean bera ere argitaratua izatea? Kollontai argitaratzea erabaki dutenak prest egongo al lirateke Woody Allenen "Apropos of Nothing" argitaratzeko, adibidez? Ala, akaso, politikoki ez-zuzena irudituko litzaeke, New York-eko zuzendari eta gidoilariaren unibertsaltasuna eta jenialtasuna alde batera utzita? Eta hala balitz, zer esan nahi luke horrek? Kalitate-irizpideen gainetik irizpide ideologikoak, "etikoak", "moralak", e.a. jarri behar direla artegintzaz ari garenean? Hori al da arteari buruz eduki behar dugun kontzeptua? Obra epaitu ordez, artistaren (ustezko) biografia epaitu behar al dugu...? Bestalde, nork erabakitzen du biografia bat benetakoa den ala ez: sare sozialak...? Pentsamendu garbiko gizarte partzial eta puritano baten aurrean ote gaude...?

Badago kezkatzen nauen beste gauza bat: idazle honen testuingurua, hau da, Errusiako Iraultza. Kritika egiteko ahalmen eskasa duten pertsona askok oraindik jarraitzen dute pentsatzen "helburuak baliabideak justifikatzen dituela". Areago, lerdo batzuk kapazak dira Mao Tse Tunguen edo Stalinen argazkia inprimatuta daukan niki bat jantzita kalera ateratzeko (neure begiekin ikusita daukat).

Argi dezagun gauza bat: Emily Brönte, Mary Shelley, Alice Munro, M. Duras, C. Mansfield, Simone de Beauvoir, Patricia Highsmith, Clarice Lispector eta horrelakoen kasuan, sekula ez dut neure buruan defentsiban jartzeko inongo premiarik barruntatu, ezertarako ez. Baina egile honekin, bai. Zergatik? Badaezpada ere... Badakigu euskaldunok jesuita samarrak garela, eta berehala pasatzen garela Europako azken jentilak izatetik katolizismoaren aldeko sutsuak izatera; ganboatar-oinaztar feudalista harroputzak izatetik arrazionalista zaharminduak izatera; erregezale-karlista egoskorak izatetik, "betidaniko" errepublikazaleak izatera. Eta burges txiki eta zuzenak izatetik, probetxuzko komunistak izatera.

Eta hori guztia esan eta gero, murgil gaitezen liburuan, ea zer gertatzen den.

Amodioa hiru belaunalditan.-

Ez naiz aspertu. Egia esan, euskaraz ondo idatzitako zerbaitekin topo egiten dudan bakoitzean, ondo pasatzeko joera dut. Alde horretatik, ez naiz oso zorrotza —inorekin ez—. Gainera, narrazio bat hasi eta bukatzen badut, bertan erakarri nauen zerbaitekin topatu dudalako da; bestela, irakurketa bertan behera utziko nukeen, eta hori gutxitan gertatzen zait (Literatura Unibertsala-ren kasuan, liburu bakarrarekin gertatu zait hori: Andrei Platonov-en “Lubakia” liburuarekin —Literatura-Unibertsala-ko 143 Zk.duna, 2009an plazaratuta—, nazkatuta iritsi bainintzen 92. orrialdera eta harantzago joateko erabat ezgauza izan nintzen. Literatura Unibertsala-rekin irakurle bezala izan dudan porrot bakarra hori izan da. Errua ez diot botatzen itzulpenari. Egilea bera zen, haren ahotsa, argudioa, nortasuna... dena; ez nuen soportatzen, jasangaitza egin zitzaidan. Besterik gabe). Gaineratzean, “negatiboegia” izateko joerarik ez dut; 500 orriko liburukote bat boluntarioki irentsi eta gero, “Ufa, ez zait bat ere gustatu. Zelako zaborra!” esaten duten irakurleak beti iruditu zaizkit pepelerdo hutsak. Hara, eta noiz konturatu zara liburuak ez zenuela gogoko?, azken orrialdera iritsi zarenean? Boluntarioki irakurtzeak eta irakurketaz ez gozatzeak ez du zentzu handirik, patologikoa dela iruditzen zait... Eta batzuek, gainera, behin ez, askotan egiten dutel! Tontoen artean tontoenak izan behar. Agian, horrelako “irakurleei” galdetu beharko litzaieke ba ote zaien gustatzen irakurtzea, koxka hor egon liteke eta. Dena den, narrazio hau ez da aparteko gauzarik. Narrazio xumea da, txukuna baina xumea, besterik gabe.

Beste zenbait burutazio.- Bere garairako aurreratua // Untxitegi-giroa (untxitegia = untxiak ugaltzeko lekua) // Kulebroi- eta folletoi-kutsua // Gehiegizkoa eta aldi berean amarrugabea // Pertsonaiak = “estereotipo iraultzaileak” // Garaia oso kontuan hartzekoa da: iraultza-giroa, I. Mundu Gerra, klandestinitatea, erbesteratzeak, indarkeria, badaezpadako oraina eta geroa... Horrelako garaietan jendea azkar bizi da, eta horrek eragina du —noski— gizonen eta emakumeen arteko harremanetan // Pertsonaia txoriburu, aldabera eta apetatsuak, gainditu egiten dituen (eta aurrerago haien aurka bueltatuko zen) kausa batera emanak // Protagonistak emakumeak izan beharrean gizonak balira, ziur aski nahiko gaitzesgarriak izango ziratekeen, seme-alabak inplikatzeko dituzten harremanak eraikitzen eta deseraikitzen dituzten erraztasunagatik // Errusiako iraultzarekin engaiaturiko emakume-erretiratuak, generorol berri bat aldarrikatzen dutenak eta, garai hartan ziur aski artean ez bazekiten ere, munduan leku berri bat irrikatzen dutenak.

Ahizpak.-

Ondo dago. Ipuin “gogorra” da, salaketa erdiragarri eta zinez latza da, ondo narraturik dago. Soberan ez du ezer, ezta faltan ere. Errealismo gordin-gordina. Ipuin laburra da. Labur-laburra. Nobel saria irabazteko adina ez du ematen... baina Kollontairen munduaren adibide ona da. Horrelako ipuin asko idatziz gero, leku bat irabaziko duzu literaturaren barruan. Kontua da, horrelako ipuin asko idatzi al zituen...?

Vasilisa Malygina.-

Irakurtzen ari naizena gogoko dut. Indarra du, erritmoa du, ondo narraturik dago... Narrazio hau garrantzitsuena da, narrazio honen arabera ikusiko baita Literatura Unibertsala-aren barruan egotea merezi duen ala ez. 129. orrialdean baino ez nago; hala ere, orain arte irakurri dudana gustatu zait. Gainera, Errusiarako ez ezik, mundu

osorako oso asaldagarria eta oso interesgarria izan zen garai bat nolakoa izan zen deskribatzen digu. Garai hari buruzko dokumentazio asko iritsi zaigu, eta mota guztietakoa: idatzia, ikus-entzunezkoa, historikoa, literarioa, e.a. Oraingoan, ordea, hura guztia hurbil-hurbiletik bizi izan zuen emakume baten begiradaren bidez heldu zaigu. Hortaz, luxuzko lekukotasun bat da, eta horrek balio berezia ematen dio liburuari. [...] Dena den, azkenean amaitu da... halako folletoi bat izaten. Apur bat nekatzen du... Eta Vasiaren nortasuna ere pittin bat nekagarria da: neurri batean, nortasun "kolektibizatu" bat erakusten du, beti "alderdirako bizitzeko" mania horrekin, militante buruberoak ezaugarritu ohi dituen ukitu "fanatiko" horrekin, herritarrak maila sozialaren eta alderdiko karnetaren arabera epaituz beti (haiek ere maila sozial jakin bat osatuko ez balute bezala, eta ez nagokio soilik proletarioen maila sozialari, baizik eta buruzagien, burokraten, alderdiko komisarioen maila sozialari, eta abarrei baizik...; protagonistak euren ideoetan hain buru-belarri sartuta dabilta, ezen, ideal horietan disolbatuta amaitzen baitute, nortasuna galduta neurri batean, pittin bat desitxuratuta... [...] Dena den, liburuaren azken txanpan sartuta, begirunez eta sinpatiaz ikusten zaio kontakizuneko protagonistari (Vasiari). Pertsona ona da. Eta hainbeste borrokatu zen sistema komunista horren ustelkeria-zantzuak ez zaizkio oharkabean pasatzen; begi pare bat du aurpegian. Ameslaria ere bada, eta hori berez ez da txarra; aitzitik, biharko errealitatea ametsekin eraikitzen baita. Askotan, asmatu-eta-tronpatu dinamikari jarraitu behar zaio, lortu nahi dugun emaitzara ahalik eta gehien hurbildu ahal izateko. Emakumeei seme-alabak hazten laguntzeko "haurtzaindegiei" buruz deskribatzen duen ametsa egungo errealitate baten iragarle suertatzen da. Alde horretatik, Kollontai aitzindari bat da, bere garairako aurrendari bat. Vasia oso eskuzabala da, pentsamoldez oso irekia, beti jartzen da ahularen alde, ideiak oso garbi dituen aktibista peto-petoa ere bada, nahiz eta hark ezin zuen eduki guk 120 urte geroago Errusiako Iraultzari buruz daukagun perspektiba. Baina hori normala da, noski. Eta denborak ematen digun abantailaz ez genuke gehitxo aprobetxatu behar, kritika zorrotzak egiteko orduan.

Zenbait ohar.-

Han eta hemen Kollontai aurkeztu izan digute Stalinen erregimen diktatorialaren "biktima" bat bezala, baina, nire ustez, diktadorearen benetako biktimak ez zeuzkaten lanean erregimenaren enbaxadore gisa; Stalinen eta haren gobernuaren benetako biktimak lurrian bi metro sakon lurperatuta daudenak dira; Siberian azpiegiturak eraikitzeko esklabo gisa erabili zituzten gizon-emakumeak dira; arrazoi politiko, ideologiko, kultural edota ekonomikoengatik —edota errusiarrak ez zirelako— sarraskitu, suntsitu eta ia-ia lurraren gainazalitik desagerrarazi zituzten herriak dira. Horiek dira Stalin buru izandako erregimen komunistaren benetako biktimak. Esaterako, diktadura frankistaren enbaxadore bat (gizonezkoa zein emakumezkoa izan) nekez aurkeztu ahal izango dugu erregimenaren "biktima" gisa; badakigu diktadura frankistaren biktimak nortzuk izan ziren, eta erregimenaren goi mailako diplomazialarien artean biktima "frankista" gutxi topatuko ditugu, ezta?.

Alde horretatik, Kollontaik erregimena ordezkatzeko jarraitu zuen, diktadorea eta haren sistema polizia ankerrean zerbitzatzen jarraitu zuen. Badakit ñabardurak egon badaudela, hori badakit; areago, "Vasilisa Malygina" narrazioan, iraultzaren gaineko kontrola hartzen hasi den erregimen politiko-polizia bati buruzko aipamenak egiten dira, esaterako, Vladimir Volodic (Volodka) protagonistaren ahotan, baina protagonista hau "deskreditaturik" dago hainbat arrazoiengatik: lizuna, anarkista, izaeraz errebeldea da, amoranteak ditu, harreman onak omen ditu burgesekin... Izen ona galdua du nobelan. Eta narrazioak aurrera egin ahala, haren izena are gehiago belztuko da, bi protagonisten arteko harremana korapilatsua bada ere...

Liburuko pertsonaiek mundu berri bat sortu nahi dute, gizarte-eredu berri bat irrikatzen dute, eta horretarako, gizonen eta emakumeen arteko harremanen ereduak zalantzan jartzeko prest daude, eta neurri batean, amarrugabetasunez jokatzeko prest daude, baina baita kuriaz ere. Garbi dago hemen eredu tradizionala jada ez dabilela, dudak jartzen da, eredu zaharkitua da, eta Vasia, esaterako, prest dago maila afektiboan ere ohiko pentsalmodiarekin hausteko; eta hori egiten du bere idealei, bere interesei, bere alderdi politikoari eta bere nortasunari uko egin gabe. Horretan ez dago ezer txarrik; alderantziz baizik. Alde horretatik, aitzindari baten aurrean gaude. Vasia munduan leku berri baten bila dabil bere proletario guztientzat oro har, baina bereziki emakumeentzat, aldatu nahi duen gizartean emakumeak babesik gabe ikusten dituelako; eta Vasiak hori dena aldatu nahi du. Eta batzuetan, noraezean eta itsuka ibili arren, sekula ez dio bere ametsari uko egingo. Badu helburu bat, eta sekula ez du amore emango. Batez ere Vasiari buruz ari naiz, liburuko hirugarren narrazioaren protagonista giltzarriari buruz.

Beraz, nolabait esateko, Kollontaik baditu bi alde: bata oso positiboa, emakumeen eskubideei eta Gizakiaren eskubide unibertsalei lotuta; eta beste bat, hain "distiratsua" ez dena, eta oso toki onean ere hura uzten ez duena, zeren, azken batean, izuan, indarkerian eta arerio politiko-kulturalaren ezabapen sistematikoan oinarritutako erregimen baten kolaborazionista eta ordezkaria izan baitzen. Egia esan, Euskal Herria Errusian egon izan balitz, Stalinekin eta haren gorilekin ez genukeen ezta hamarkada batez ere bizirik iraungo; laster, gure biztanleria urria Siberiako tundran zehar sakabanatu eta jarraian bi milioi errusiar ekarriko zituzketen Euskadira, bizirik utziko zituzketen lau katuekin nahasteko, errusiarrak ez ziren gainerako herrien eskarnio eta zentzagarri. Eta bien bitartean, Kollontai enbaxadore eta diplomazialari lanak egiten erregimen estalinistarako. Ikusten duzue, kontraesanak denok dauzkagu (baina batzuek beste batzuek baino gehiago).

Batzuetan gogoeta egiten dut, ezen, gizonak manipulatu duenean, dorpe samarra izaten dela; emakumea, ordea, alde horretatik zoliagoa, trebeagoa eta sinesgarriagoa da... lehenago edo beranduago dena argitara ateratzen bada ere. Eta hau ez dut esaten Kollontairengatik. Orokortasun modura baizik... Aurreiritziak? Ez dakit ba...

Jakina, ezin dugu ahaztu denok garela gure garaiotako seme-alabak. Eta une jakin batean edo bestean, dagoen bide bakarra elkar barkatzen saiatzea dela... gizalegez posible zaigun punturaino.

Dena den, orain dator galderari eman beharreko erantzuna: merezi al du Kollontaik gure Literatura Unibertsala-ren barruan egotea? Bai, nik uste dut baietz; idazle modura

bertute asko soberan izan ez arren, badu toki bat gure Literatura Unibertsalean. Liburua interesgarria da, eta gainera, lortu dut liburuarekin dialektika bat zabaltzea, eta hori bera da garrantzitsuena: liburuak irenstea ez, liburuak asimilatzea baizik. Eta gauzak dudan jartzea, berez, ez dago gaizki. Gaizki dagoena dudan deusik ez jartzea da edota gauza batzuk dudan jartzea eta beste batzuk ez... Politikoki zuzenak izatea politikarako ondo dagoela pentsatzen dut, baina ziur aski ez da printzipio ona literaturarako eta, oro har, artegintzarako. Gure Literatura Unibertsalean oraindik lekuri aurkitu ez duten egile asko daude, gizonezkoak zein emakumezkoak izan; eta pobrezia-garai hauetan, are eta zailagoa da haietzako leku bat topatzea. Edozein kasutan ere, izan zaitez ongi etorria, Aleksandra Kollontai, euskaldunon etxera. Dobro pozhalovat!